

BESTELAKO XEDAPENAK

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

4119

AGINDUA, 2023ko abuztuaren 29koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, Merkataritzako Bulego Teknikoen funtzionamendurako 2023 eta 2024ko ekitaldietarako laguntza-programa arautzen eta iragartzen duena (MBT 2023-2024).

Merkataritza-sektoreak egitura-aldaketa sakonei egin behar die aurre, eta erronka nagusia kontsumitzaileen erosketa-ohitura berriei erantzuteko eraldatzea da. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eta banaketa-bide berrien agerpen indartsua direla eta, beharrezkoa da estrategia berriak eta negozio-eredu berriak hartzea, sektorearen lehiakortasuna hobetzeko, eraldaketa digitalean eta jasangarritasunean oinarrituta.

XII. Legegintzaldiko «Euskadi Martxan 2020-2024» gobernu-programa lau ardatzetan dago egituratuta, eta horietatik lehenengo ardatza da Oparotasuna izeneko, non artikulatzen baitira enplegua eta suspertze ekonomikoa bultzatzeko jardun-arloak. Programan bertan jaso denez, merkataritza-jarduera da gure gizartearen eta hirietako bizimoldearen oinarritzko elementu bat, eta tokiko hazkunde ekonomikoan eta enpleguaren sorkuntzan laguntzen du.

Ardatz horretako bederatzi jardun-arloetako batean merkataritza eta ostalaritza landu dira, eta helburu hauetarako jarduketa-konpromisoa nabarmendu behar da: establezimenduaren lehiakortasuna hobetzea eraldaketa digitalera bideratutako ekimenekin, gaitasun profesionalak garatzea, kudeaketa hobetzea eta, oro har, jasangarritasunera eta digitalizaziora bideratutako ekintzak, lurraldearekin lotutako marka sortzearen alde eginez eta arreta berezia jarriz saltoki txikietan. Jarduketa-konpromiso bat da, orobat, erakundearteko gobernantzan sakontzea eta aliantzak bultzatzea zenbait ekimenen bidez, hala nola merkataritza- eta ostalaritza-sektoreetatik sortzen diren elkarlan-sinergiak sustatuz eta agente guztien lankidetzeta eta koordinazioa indartuz.

Konpromiso eta ekintza horiek guztiak 2030erako EAEko Merkataritzaren Estrategian eta 2021-2025 Merkataritza Planean garatuko dira. Hain zuzen ere, plan horren helburua sektorearen eraldaketari, modernizazioari eta gaztetzeari erantzutea da. Horrez gainera, EAEko politika komertziala bultzatu behar duen gobernantza-eredua jorratu eta eguneratu beharko da, betiere erakundearteko elkarlana eta eragile publiko eta pribatu guztien lankidetzeta oinarri hartuta.

2020an, COVID-19aren osasun-krisiak bereziki eragin zion merkataritza-sektoreari, eta merkataritza-azpisektoreen arabera inpaktua desberdina izan arren, txikizkako merkataritzaren salmenta-indizeak % 4,9ko jaitsiera metatua izan zuen aurreko urtearekiko, lan-egutegiaren baldintza homogeen eta prezio konstanteetan. 2021. urtean, % 3,6ko igoera izan zuen 2020. urtearekiko, eta suspertze-zantzu horiek berretsi egin dira, txikizkako merkataritzaren salmenta-indizeak % 2,9ko igoera metatua izan baitu aurreko urtearekiko.

Hala ere, COVID-19aren osasun-krisiaren ostean merkataritza-sektoreak duen egoerak, Ukrainako gerraren eragin ekonomikoak eta pixkanaka bizitzen ari garen suspertze-fasean orokortutako ziurgabetasun ekonomikoak babesa eta bultzada behar dituzte jarduera berreskuratzeko eta merkataritza-sektorea biziberritzeko.

Txikizkako merkataritzak erronka asko ditu aurrean, hala nola eskaintza kontsumo-ohituen aldatari eta kontsumitzaile berriei erantzungo dien eskarira egokitzea; negozio-ereduen hibridazioa;

merkataritza-banaketa eta hiri-ereduak; online merkataritza, etab. Horiek guztiek ezinbestekoa egiten dute sektorea sakon eta azkar eraldatzea.

Deskribatutako guztiagatik, eta aurreko deialdietan egin zen modu berean, komenigarritzat jotzen da Merkataritzako Bulego Teknikoen (MBT) sostengurako laguntza-programa martxan jartzea, eta aurrekontu-ahalegina Euskal Autonomia Erkidegoko Merkataritzako Bulego Tekniko guztien funtzionamendura bideratzea. Laguntzak lehiaketa-prozeduraren bidez emango dira, Agindu honetan ezarritako baremazio-irizpideak erabiliz.

Lurralde osoan zehar banatzen diren eta sarean lan egiten duten MBTak Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-enpresei laguntzeko aktibo nagusietako bat dira, eta balio handiko lanbide-taldea osatzen dute politika publikoak koordinatzeko eta dinamizatzeko, lankidetzaren publiko-pribatu estua erraztuz. Sektorearekin lotutako jarduerak behar bezala gauzatzeko aholkularitza eta trebetasuna eskaintzen dituzte. Hori guztia, gainera, hiri-merkataritzaren arazoa gertutik ondo ezagututa egiten dute.

Bulego horiek, beren eginkizuna garatzean, Sailaren politiken ahalegina merkataritza-sektoreantz bideratu behar dute, dinamizazioa eta sustapena sustatuz, kudeaketa-ereduak partekatuz eta espezializazioak, sektorekoak zein zonakoak, eraginkortasunez estaliz. Alde horretatik, laguntza espezializatua eman behar dute merkataritza-banaketaren sektoreak dituen erronka berrien aurrean, zona bakoitzeko merkataritzaren lehiakortasuna hobetzen eta denboran irauten lagunduko duten prozesuak sustatuz.

Programa honetan diruz lagundu beharreko jarduerak Merkataritzako Bulego Tekniko guztien funtzionamendua ahalbidetu beharko dute. Bulego horietatik, langile kualifikatuek merkataritzari laguntzeko zerbitzua emango dute, doan eta merkataritza-banaketaren sektore osoari eta haren erakundeei zuzenduta, generoaren, jasangarritasunaren eta eraldaketa digitalaren ikuspegitik.

Hori guztia Garapen Jasangarrirako 2030 Agendarekin bat etorritik egingo da, eta Sailak eta Jaur-laritzak agenda horrekin duten konpromisoa indartzuz, bereziki Garapen Jasangarrirako Helburuei dagokienez: GJH5: Genero-berdintasuna; GJH8: Hazkunde inklusibo eta jasangarria sustatzea, baita guztientzako enplegua eta lan duina ere; GJH9: Industria, berrikuntza eta azpiegitura; GJH11: Hiri eta komunitate jasangarriak; GJH12: Kontsumo- eta ekoizpen-modalitate jasangarriak; GJH13: Klimaren aldeko ekintza, bereziki ekonomia zirkularraren sustapena; eta GJH17: Helburuak lortzeko aliantzak.

Eta bat etorritik, halaber, 2030erako Merkataritzaren Euskal Estrategia Planarekin. Plan hori 6 eraldaketa-bektoreren edo lan-bide handien gainean egituratzen da, eta horietako bat Hiri Espazioa da. Hiri-espazioa merkataritza-politika publiko guztien bateratze eta aktibatze sinergikoaren gune bihurtu behar da; eta erakunde arteko lankidetzan eta lankidetzaren publiko-pribatuen oinarritu behar da, modu eta esperientzia berrietara irekita.

Agindu hau Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren 2023rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan sartuta dago. Plan hori Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2023ko otsailaren 21eko Aginduaren bidez onartu zen, eta egoitza elektronikoko iragarki-taulan, Sailaren webgunean eta Legegunean argitaratu zen ofizialki. Gainera, behar adina aurrekontu-kreditu du Euskal Autonomia Erkidegoko 2023. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 15/2022 Legean ezarritakoaren arabera.

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 10.27 artikuluan xedatutakoarekin bat (abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa), Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du Barne-merkataritza arloan.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 15.1 artikulua araber, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak du arlo honen gaineko eskumena.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 13/2021 Dekretuaren 3.1 artikulua dioenez, sail horretako titularrari dagokio Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. artikuluan zehaztutako eskumenak eta indarreko legediak esleitzen dizkion guztiak baliatzea, Sailari dagozkion eginkizunen eta jardun-arloen esparruan.

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea honako hau da: Merkataritzako Bulego Teknikoen funtzionamendua sustatzeko dirulaguntzak ematea, 2023. eta 2024. urteetarako. Bulego horien bidez, langile kualifikatuek laguntza-zerbitzua emango diete, doan, merkataritza-banaketaren sektore osoari eta sektoreko erakundeei, generoaren, jasangarritasunaren eta eraldaketa digitalaren ikuspegia kontuan izanda.

Bulego Teknikoen funtzionamendurako laguntzak jardun-eremuaren arabera egituratzen dira, dirulaguntza-lerro hauen arabera:

I) Zonako edo tokiko eremua.

a) Zonako edo tokiko merkatarikari-elkarteetan edo elkarte-taldeetan kokatutako zonako edo tokiko Merkataritzako Bulego Teknikoentzako laguntzak, horien egitekoa honako hau denean: beren jardun-eremuan doako laguntza-zerbitzua ematea merkataritza-banaketaren sektore osoari eta hark barne hartzen dituen erakundeei.

b) Udaletan, haiek sustatutako garapen-agentzietan edo -erakundeetan eta tokiko beste erakunde batzuetan kokatuta dauden Merkataritzako Bulego Teknikoen funtzionamendua ahalbidetzeko laguntzak, horien jardun-eremuak I. eranskineko zonari dagokiona gainditzeko ez badu. Izan ere, laguntza horien helburua da zonako merkataritza-sektorearen lehiakortasuna eta tokiko edo eskualdeko hiri-ekonomia areagotzen laguntzea.

II) Lurralde-eremua.

Jardun-eremua beren lurralde historikoa duten eta merkatarikarien enpresa-federazioetan edo -konfederazioetan kokatuta dauden Merkataritzako Bulego Teknikoen funtzionamendua ahalbidetzeko laguntzak. Izan ere, honako hau da laguntza horien xedea: doako laguntza-zerbitzua ematea merkataritza-banaketaren sektore osoari, hark barne hartzen dituen erakundeei eta lurralde historikoko gremio-elkarte guztiei.

III) Lurraldeko gremio-eremua.

Lurraldeko gremio-eremuko Merkataritzako Bulego Teknikoen funtzionamendua ahalbidetzeko laguntzak, horien xedea honako hau denean: lurralde historiko horretako gremio jakin bati (merkataritza-arlokoa edo hiri-merkataritzarekin lotutako zerbitzuen arlokoa) doako laguntza ematea.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

1.– Deialdi honetan araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 2.000.000 eurokoak dira guztira: 1.600.000 euro 2023ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 400.000 euro, berriz, 2024ko konpromiso-kredituari. Baliabide horiek honela banatuko dira:

– Zonako edo tokiko bulegoentzako laguntzak: 1.480.000 euro (1.184.000 euro 2023rako, eta 296.000 euro 2024rako).

– Lurralde-eremuko bulegoentzako laguntzak: 440.000 euro (352.000 euro 2023rako, eta 88.000 euro 2024rako).

– Lurraldeko gremio-eremuko bulegoentzako laguntzak: 80.000 euro (64.000 euro 2023rako, eta 16.000 euro 2024rako).

2.– Aurreko apartatuan adierazitako eremuren batean aurreikusitako diru-zuzkidura agortzen ez bada, soberakina beste eremu batzuetako bulegoak finantzatzeko erabiliko da, lehentasun-hurrenkera honi jarraituz: 1. Lurralde-eremuko merkatari-federazioak, elkarte-taldeak eta merkatari-elkartek edo elkarte mistoak; 2. Zonako elkarteak; 3. Udalak, horiek sustatutako garapen-agentziak edo -erakundeak eta tokiko beste erakunde batzuk; 4. Lurralde-eremuko gremio-elkartek.

3.– Aurrekontu-ekitaldian eman beharreko laguntzen guztizko bolumenak ez du aipatutako aurrekontu-kontsignazioa gaindituko inola ere.

3. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Honako hauek izan daitezke deialdi honetan jasotzen diren dirulaguntza-lerroetan aurreikusitako laguntzen onuradunak:

I) Zonako edo tokiko eremua.

a) Merkatarien elkarteak edo elkarte mistoak, bai eta horien taldeak ere, baldin eta egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan badute eta beren jarduera-eremua ez bada I. eranskineko eremuari dagokiona baino handiagoa.

Hiriko merkataritza-jarduerarekin zerikusia duten bestelako zerbitzuak elkartzeko aukera onartzen duten erakundeak onuradun izan daitezke, baldin eta elkartekideen artean merkataritza-jarduerarekin zerikusia duten merkataritza- edo zerbitzu-establezimenduen presentzia % 50etik gorakoa bada, Euskal Autonomia Erkidegoko Merkatarien Elkarten Erroldan eskuragarri dauden datuen arabera.

Edonola ere, merkatari-elkartek edo elkarte mistoak onuradun izan daitezke, betiere elkar-tearen sostengu ekonomikorako ekarpenak egiten dituzten 20 merkataritza-establezimendu ordezkatzan badituzte gutxienez.

Ez dira laguntzen onuradun izango EAEko hiru hiriburu-eremuko hiri-merkataritzako plataforma gisa eratuta dauden elkarteak edo taldeak, horiek administrazioarekiko berariazko hitzarmenen xede izango baitira.

b) Udalak, haiek sustatutako garapen-agentziak edo -erakundeak eta tokiko beste erakunde batzuk.

II) Lurralde-eremua.

Nagusiki merkatari-elkartez osatuta dauden federazioak edo taldeak, egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan badute eta haien jardun-eremua lurralde historiko batera mugatzen bada. Erakunde

horiek beren jardun-eremuko bulegoentzako dirulaguntzak baino ezin izango dituzte baliatu, eta bertako gremio-elkarte guztiei emango diete zerbitzua.

III) Lurraldeko gremio-eremua.

Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko batean egoitza duten gremioen eremuko merkataritza-elkarteak edo hiri-merkataritzarekin lotutako zerbitzuak, haien jardun-eremua lurralde historiko bat bada. Erakunde horiek beren jardun-eremuko bulegoentzako dirulaguntzak baino ezin izango dituzte baliatu, eta lurralde horretako gremio zehatz osoari emango diote zerbitzua.

Edonola ere, gremio-izaerako elkarteak onuradun izan daitezke, betiere elkartearen sostengu ekonomikorako ekarpenak egiten dituzten gremioko 20 merkataritza-establezimendu ordezkatzeko badituzte gutxienez.

2.– Laguntzak eskatu ahal izateko, merkatarien elkarteek, elkarte-taldeek eta federazioek behar bezala eratuta eta inskribatuta egon beharko dute dagozkien erregistroetan:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistro Orokorrean, uztailaren 29ko 145/2008 Dekretuak arautuan, edo Euskal Autonomia Erkidegoko Enpresa eta Sindikatu Elkartearen Erregistroan, Sindikatu- eta enpresa-erakundearen estatutuak gordailutzeari buruzko maiatzaren 29ko 416/2015 Errege Dekretuak arautuan.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Merkatarien Elkartearen Erroldan, ekainaren 17ko 148/1997 Dekretuak arautuan, datuak araudiaren arabera eguneratuta.

Lurraldeko gremio-izaerako elkarteak edo taldeak b puntutik kanpo geratuko dira, betiere hiri-merkataritzako jarduerarekin lotutako zerbitzuetako profesionalak barne hartzen badituzte.

3.– Aurreko apartatua aurreikusitako baldintzez gain, erakunde onuradunek eskakizun hauek bete beharko dituzte:

a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, bai dirulaguntza emateko unean, bai ordaintzeko unean.

Dirulaguntzaren eskabidea aurkeztuta, eskatzaileak baimena ematen dio dirulaguntza emango duen organoari zuzenean ziurtagiri telematikoen bidez egiazta ditzan Dirulaguntzen Erregelamenduaren 18. eta 19. artikuluetan (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua) aurreikusita dauden egoerak, zergaren eta gizarte-segurantzaren arloko betebeharrak betetzeari dagokionez. Hala ere, eskatzaileak espresuki ukatu ahal izango du baimen hori, eta, hala eginez gero, ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, Dirulaguntzen Erregelamenduaren 22. artikuluan adierazi bezala (887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa).

b) Egunean izatea dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketa.

c) Ez izatea dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten duen zehapen penal edo administratiborik, eta ez izatea horretarako desgaitzen duen lege-debekurik (sexu-diskriminazioagatik sortutakoak barne, Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuari edo Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoari jarraikiz).

d) Ez egotea Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 116. artikuluan ezarritako egoeraren batean.

e) Ez egotea laguntzak berreskuratzeko agindu baten menpe, Europako Batzordeak laguntza bat legez kanpokoa eta merkatu bateratuarekin bateraezina dela erabaki ondoren.

f) Ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitako gainerako egoeren eraginpean, ezta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50. artikulua eraginpean ere, dirulaguntzen onuradun izateko eskakizunei dagokienez.

II. KAPITULUA

LAGUNTZAK

4. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak:

1.– Dirulaguntza jaso ahal izateko, bulegoek merkataritza-banaketan espezializatuta egon behar dute, zerbitzuak doan eman behar dituzte eta haien jarduerak hiriko merkataritza-ekonomia sustatzea izan behar dute helburu.

2.– Ekintza-ildoan, honako hauek barne hartu beharko dira:

a) Eraldaketa digitalarekiko sentsibilizazioa eta horrekin lotutako prozesuak bultzatzea.

b) Berrikuntzarekiko sentsibilizazioa eta horrekin lotutako prozesuak bultzatzea.

c) Kudeaketaren kalitatearekiko sentsibilizatzea eta horrekin lotutako prozesuak bultzatzea.

d) Lankidetzaren prozesuak bultzatzea, hiri-eremuetan.

e) Lankidetzaren prozesuak bultzatzea, banaketa-katean.

f) Ekintzailearen eta enpresa-transmisioaren arloko prozesuen jarraipena egitea eta horiek bultzatzea.

g) Udalerrietan eta/edo eskualdeetan hirugarren sektoreko estrategiak bultzatzea (ostalaritza, zerbitzuak, kultura, ondarea edo beste sektore batzuk).

h) Kontsumitzaileentzako balio erantsia sortzeko eta xede-publikoaren fideltasuna lortzeko ekintzak garatzea.

i) Garapen jasangarriarekin eta/edo energia-efizientziarekin lotutako estrategiak garatzea, baita autokontsumorako eguzki-energia fotovoltaikoa ezartzea sustatzen duten Energia Komunitateak sustatzea ere.

3.– Jardun-eremua zonakoa edo tokikoa, lurraldekoa edo lurraldeko gremio-eremukoa izango da, agindu honen I. eranskinaren arabera.

4.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira, eta bulegoko teknikariak kontratatzeke kostuetarako eta kontratazioak eragindako bestelako kostuetarako erabiliko dira soilik.

5. artikulua.– Exekuzio-aldia.

Diruz lagunduko den proiektuaren exekuzio-aldia 2023. urtean hasi, eta 12 hilabetez jarraian egin beharko da: horietatik hiru, gutxienez, 2023. urtean izango dira. Aurreko deialdian diruz lagundutako aldiak ez dira diruz lagunduko.

6. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak dira inolako zalantzarik gabe diruz lagundutako jardueraren izaera dutenak, behar-beharrezkoak direnak, eta deialdi honetan eta dirulaguntza emateko ebazpenean nahiz haren balizko aldaeretan ezarritako epean egiten direnak.

2.– Agindu honetan aurreikusitako ondorioetarako, 18. artikuluan zehaztutako justifikazio-aldia bukatu aurretik benetan ordaindutakoa joko da egindako gastutzat.

3.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak honako hauek izan daitezke:

a) Merkataritzako Bulego Teknikoko (aurrerantzean, MBT) teknikarien soldata-gastuak.

b) Erakundeak MBTko teknikariengatik ordaindu beharreko gizarte-aseguruak.

c) Erakundeak BGAE batean edo gizarte-aurreikuspeneko beste sistema batzuetan bulegoko teknikarien alde egindako ekarpenak.

d) MBTko teknikariei dagozkien kontratu edo nominak egiteagatik sortutako zerbitzu profesional independenteen kostuak: nominak egitea; kontratuak egitea; atxikipenen ereduaren hiruhileko eta urteko betebeharrak fiskalak egitea; Gizarte Aseguruak egitea eta izapidetzea, eta MBTaren jarduera estaliko duen erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatzea.

Kanpoan geratuko dira langileari aplikagarri zaion lan-arloko legeria betetzen ez duten langile-gastuak.

4.– Gastu horiek diruz lagundu ahal izango dira MBTko teknikari izateko kontratatutako pertsonak baldintza hauek betetzen dituenean:

– Unibertsitate-titulu ofiziala.

– Lanaldi osoan kontratatuta egotea.

– Gizarte Segurantzaren altan egotea, eskatzailearen erakundean, proiektua hasten den unean.

– Kontratuko kategoria profesionala bat etorriko da, halaber, eskatutako titulu akademikoarekin.

– Ordainsari ekonomikoa, gutxienez, aplikatu beharreko hitzarmenean jasotakoa izango da.

– Kontratutako pertsonari bere eginkizuna garatzeko behar duen ekipamendu material guztia helaraziko zaio: ekipamendu informatikoa, telefonoa eta abar.

5.– Gerora sortutako inguruabarrengatik soilik onartuko da teknikariak ordezteko edo beste batzuk kontratatzea, bulego bakoitzak eman behar duen zerbitzua beteta gera dadin, eta honako kasu hauetan:

– Hasiera batean baimendutako pertsonak lanaldi-murrizketa eskatzen badu laneko eta familiarako bizitza bateratzeko.

– Hasiera batean baimendutako pertsonak laneko baja hartzen badu.

– Hasieran baimendutako pertsonak kargua uzten badu.

Kontuan har dadin, 20. artikuluko 3. puntuan deskribatutako prozedurari jarraitu beharko zaio. Idazki bat aurkeztu beharko da gerora gertatu den egoera horren zergatiak azaltzeko eta hasieran diruz lagundutako baldintzak alda daitezela eskatzeko. Era berean, kontratazio berria egiten bada, kontratudun berriaren curriculum vitae-a eta kontratu berriaren kopia ziurtatua erantsi beharko

dira. Gertaera horrek ez du emandako dirulaguntza handitzerik ekarriko, eta Merkataritza Zuzendaritzak egiaztatuko du.

6.– Honako hauek ez dira hartuko diruz laguntzeko moduko gastutzat:

- Joan-etorrietarako, mantenurako edo antzekoetarako gastuak.
- Lan-harremana amaitzearen ondoriozko kalte-ordainei dagozkien langile-gastuak.
- Praktikaldiko kontratuei dagozkien edo eskatutako titulazioarekin bat ez datorren lanbide-kategoria bat duten langileen gastuak.

7.– Aurreko apartatueta aurreikusten ez den guztirako, honako arau hauetan ezarritakoa bete beharko da: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 29. eta 31. artikulua eta Lege horren Erregelamenduko 83. artikulua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onetsi zuen aipatu Erregelamendua).

7. artikulua.– Laguntza ekonomikoen zenbatekoa.

Laguntzaren zenbatekoak bulegoaren zerbitzua beteko duen pertsona urtebetez lanaldi osoan kontratatzeko kostuen % 90era arte estal dezake. Edonola ere, bulego bakoitzak jaso dezakeen gehieneko zenbatekoa ez da 40.000,00 eurotik gorakoa izango.

Diruz lagundu daitezkeen gastuei eta 40.000,00 euroko zenbatekoari % 90eko ehuneko-indizea aplikatu, eta bi kopuru horietan txikiena izango da emango den dirulaguntzaren zenbatekoa.

8. artikulua.– Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

1.– Agindu honetan ezarritako laguntzak bateragarriak izango dira administrazio publikoek edo erakunde pribatuek emandako beste edozein laguntzarekin, betiere helburua berbera baldin bada.

2.– Dirulaguntzaren zenbatekoak ezin izango du gainditu erakunde onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua, estatuko nahiz nazioarteko beste administrazio publiko edo erakunde pribatu edo publiko batzuetatik eskuratutako laguntzak edo dirulaguntzak batuta.

3.– Aurrekoaren ondorioetarako, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da eskabi-dearekin batera, helburu bera lortzeko beste finantzaketa-iturririk dagoen (edo ez) azaltzeko, eta oraindik ebatzi gabe dauden laguntza-eskabideen zenbatekoa ere adierazi beharko da.

4.– Gehiegizko finantzaketa gertatuko balitz, agindu honen bidez emandako laguntza murriztuko da, gehiegizko zatiaren zenbatekoan.

5.– Agindu honen babesean lortutako dirulaguntzak ez dira bateragarriak izango aurreko deialdian diruz lagundutako aldiekin.

6.– Agindu honetan araututako dirulaguntzak, estatu kideen arteko merkataritza-trukeei eragiten ez dietenez, ez dira estatu-laguntzat hartuko, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, eta, beraz, ez zaie aplikatuko 107.1 artikuluan ezarritakoa.

9. artikulua.– Bulegoen jarduna.

Merkataritzako Bulego Teknikoek, dirulaguntza jaso ahal izateko, agindu honen I. eranskinean ezarritako jardun-eremuetako bat izan beharko dute.

Edonola ere, doako zerbitzua eskainiko diete beren eremuko saltoki eta hiriko merkataritza-jardunarekin lotutako zerbitzu guztiei, bazkideak izan zein ez, bai eta beren jardun-eremuko elkarteei ere, hala eskatzen badute.

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan xedatutakoa betez, eta agindu honen 19. artikulua k letran ezartzen den bezala, diruz lagundutako jarduerarekin lotutako ekintzetan hizkera inklusiboa eta ez-sexista erabiliko da, eta emakumeen eta gizonen rolei dagokienez erabilera estereotipaturik ez egitea bermatuko da.

10. artikulua.– Bulegoen kopurua.

Gehienez, 50 merkataritzako bulego teknikori emango zaie dirulaguntza, eta I. eranskinean adierazitako moduan banatuko dira.

III. KAPITULUA

PROZEDURA

11. artikulua.– Eskabideen aurkezpena eta epea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta hura argitaratzen denetik hilabetera amaituko.

2.– Eskabideak, errekerimenduak, jakinarazpenak, zuzenketak eta agindu honekin lotutako gainerako kudeaketak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira.

3.– Eskabidea eskuratu eta betetzeko bide bakarra Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikora jotzea izango da. Helbidea honako hau da: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1026910>

Elektronikoki nola izapidetu jakiteko zehaztapenak, baita eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko horretan egongo dira eskuragarri. Era berean, eredu horien edukiak agindu honetako II. eranskinean daude jasota.

Espedientean sartzeko, errekerimenduak eta jakinarazpenak jasotzeko eta prozedurarekin lotutako gainerako izapidetak egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» aplikazioa baliatu behar da (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>)

4.– Helbide honetan eskuratu daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko onartzen diren identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

5.– Eskabidearekin batera, erakunde eskatzailea ordezkatzeko gaitasun legala duen pertsona edo erakundearen sinadura elektronikoa ez ezik, harekin batera aurkeztu beharreko agiriak eta urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera Administrazioak eska ditzakeenak aurkeztu beharko dira.

6.– Ordezkaritza bidez jardun nahi izanez gero, ordezkaritza beste pertsona bati eman ahal izango zaio, interesdunaren izenean jardun dezan bitarteko elektronikoen bidez, agindu honi buruzko prozedura guztietan. Horretarako, honako bitarteko hauek erabiliko dira:

– Ahalordetzeen Erregistro Elektronikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Egoitza Elektronikoa kokatua (<https://www.euskadi.eus/ordezkarriak/>); edo:

– «Borondatezko legezko ordezkari-tza egilesteo inprimaki normalizatu» (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/-/eskabidea/borondatezko-legezko-ordezkaritza-egilestea-inprimaki-normaldua/>), behar bezala formalizatu; eta eskabidearekin batera aurkeztu beharko da.

Pertsona juridikoek, gainera, ordezkari-tza-ahalordearen kopia erantsi beharko dute, edo, bestela, ahalorde-emailea entitate ordezkari-tza-emailearen legezko ordezkari gisa legitimatzen duen legezko beste edozein dokumentu.

Ordezkarriak identifikaziorako bitarteko elektronikoa onartu bat eduki beharko du. Helbide honetan eskuratu daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa onartzen diren identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

7.– Laguntza-eskabidea eta eskatutako dokumentuak aukeratutako hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dira. Era berean, dirulaguntza-eskabidearen ondoriozko jarduketetan, eta prozedura osoan, erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean ezarritakoaren arabera.

8.– Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.6 artikulua eta Dirulaguntzen Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Dekretuaren 26. artikulua betez, inguruabar hauek egiaztatu beharko dira erantzukizunpeko adierazpen baten bitartez, baita eskabidean ere:

a) Helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk eskatu eta, hala badagokio, lortu diren, beste edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batetik.

b) Erakunde eskatzailea ez dagoela sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen arloan abian den inongo itzultze- edo zehapen-prozeduratan.

c) Erakunde eskatzaileak ez duela laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzea eragozten dion zehapen administratibo edo penalik, edo ez daukala horretarako legezko debekurik.

d) Ez dagoela Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra (azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra) 13.2 artikuluan erakunde onuradun izateko aurreikusituen dituen egoeretatik ezeinetan.

e) Ez dagoela Elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoak 4.5 eta 4.6 artikuluetan aurreikusitako debeku-egoeretan. Gainera, ez du inskribatzeko administrazio-prozedura geldiarazita eduki behar ebazpen judizial irmoa ematen ez den bitartean, ez-zilegitasun penalaren zantzu arrazionalak aurkitu direlako (1/2002 Lege Organikoaren 30.4 artikulua).

9.– Subjektu onuradunaren kalifikazioa lortzeko, ezinbestekoa izango da laguntza eman aurretik zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzakoak egunean edukitzea eta, hala badagokio, dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta izatea; halaber, egoera horretan egon beharko da emandako dirulaguntza guztiz likidatzen den arte. Hortaz, hala dirulaguntza ematean nola dagoz-kion ordainketak egitean egiaztatuko da horiek guztiak betetzen direla.

Dirulaguntzaren eskabidea aurkeztuta, eskatzaileak baimena ematen dio dirulaguntza emango duen organoari zuzenean ziurtagiri telematikoen bidez egiaztatu ditzan Dirulaguntzen Erregelamenduen 18. eta 19. artikuluetan (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua) aurreikusita dauden egoerak, zergaren eta gizarte-segurantzaren arloko betebeharrak betetzeari dagokionez. Hala

ere, eskatzaileak espresuki ukatu ahal izango du baimen hori, eta, hala eginez gero, ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, Dirulaguntzen Erregelamenduaren 22. artikuluan adierazi bezala (887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa).

10.– Era berean, eskabidea egin duen erakundeak adierazi behar du egiazkoak direla eskabidean eta harekin batera aurkeztutako dokumentuetan agertzen diren datuak, eta betetzen dituela, orobat, dirulaguntza jasotzeko indarrean dagoen araudian ezarritako eskakizunak.

11.– Espedientearen tramitazioaren edozein unetan egiaztatu ahal izango da eskabidean jasotako datuen egiazkotasuna. Erantzukizunpeko adierazpenean agertzen den daturen bat faltsua izanez gero, erakunde eskatzaileak zehapen administratiboa edo penala jasoko du, dagokion araubidearen arabera.

12.– Eskabideak aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartzen direla deialdi honen agindu arautzailean zehaztutako eskakizunak.

12. artikulua.– Eskabidearen edukia eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Laguntza-eskabidearekin batera, II. eranskinean zehazten den dokumentazioa aurkeztu beharko da, formatu digitalean.

1.– Honako hau da eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa:

a) Dirulaguntzetara aurkeztutako jarduketa-proiektuaren memoria eta lan-plana, III. eranskinean adierazitako ereduaren arabera.

b) Agindu honetan aurreikusitako dirulaguntzak jaso ahal izateko, kasuan kasuko organo eskudunak hartutako erabakiaren ziurtagiria.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistro Orokorrean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Enpresa eta Sindikatu Elkartearen Erregistroan izena emanda egotearen ziurtagiri eguneratua.

d) Merkataritzako elkarte, talde edo federazioko idazkariaren ziurtagiria, gehienez ere eskabideak hasteko epea baino hilabete bat lehenago egina, bazkideen zerrenda barne duela. Enpresen zerrendan, titularrak generoaren arabera bereizita agertu behar dute, eta azken ekitaldian bildutako kuotak, banakatuta.

e) 2023ko ekitaldiko diru-sarreraren eta gastuen aurrekontuak, behar bezala banakatuta, eta 2022ko ekitaldiko diru-sarreraren eta gastuen kontuak, bazkideen kuotaren zenbatekoa ere zehaztuta. Udalen eta horiek sustatutako garapen-agentzien eta -erakundearen eta tokiko beste erakundearen kasuan, merkataritzaren eremuari buruzkoak izango dira dokumentu horiek.

f) Erakunde eskatzailearen ziurtagiria, gehienez ere eskabideak hasteko epea baino hilabete bat lehenago egina, erakunde eskatzailearen gobernu-organoren osaera egiaztatzen duena, generoaren arabera banakatuta.

g) Beste erakunde batzuekin sinatutako lankidetzeta-hitzarmenak eta -akordioak. Merkatarien elkarte, elkarte-talde eta federazioen kasuan, erakunde publikoekiko hitzarmenak. Udalen, garapen-agentzien eta tokiko beste erakunde batzuen kasuan, tokiko merkataritza-elkarteekiko hitzarmenak (merkatarien elkarteak, elkarte-taldeak eta federazioak).

h) Bulegoko teknikarien curriculum vitae-a.

i) Lan-bizitzaren ziurtagiria, Gizarte Segurantzak egina, lan-esperientzia egiaztatzeko.

j) Euskararen ezagutzaren egiaztapena, hizkuntza-ziurtagiriak emateko baimena duen erakunde ofizial batek emandako tituluaren edo ziurtagiriaren kopiaren bidez.

k) 6. artikuluko 4. puntuan eskatzen den titulu akademikoaren kopia edo Uniibertsitate-titulu ofizialak emateari buruzko abuztuaren 5eko 1002/2010 Errege Dekretuaren 14.2 artikulua araberako behin-behineko ziurtagiri osagarria.

l) Balora daitezkeen beste titulazio ofizial batzuei dagokien titulu akademikoaren kopia edo Unibertsitate-titulu ofizialak emateari buruzko abuztuaren 5eko 1002/2010 Errege Dekretuaren 14.2 artikulua araberako behin-behineko ziurtagiri osagarria.

m) Berdintasunaren arloko ekintza zehatzak gauzatu izana egiaztatzeko dokumentazio baloragarria (14. artikulua 2. puntuaren E.2 apartatuaren arabera).

n) Ingelesaren eta/edo frantsesaren ezagutzaren egiaztapena, hizkuntza-ziurtagiriak emateko baimena duen erakunde ofizial batek emandako ziurtagiriaren edo tituluaren kopiaren bidez.

o) Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren 22.2 artikuluan identifikatutako administrazio-ziurtagiri positiboak.

2.– c), i), j), k), l) eta o) puntuetan eskatzen den dokumentazioa bakar-bakarrik eskatuko da baldin eta eskatzailea organo kudeatzaileak dokumentazioa zuzenean jasotzearen aurka baldin badago.

c) puntuan, dokumentua aurkeztu beharko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Enpresa eta Sindikatu Elkartearen Erregistroan inskribatuta egonez gero.

k) eta l) puntuetan, atzerriko titulazioa bada, homologatu edo aitortu egin beharko da, eta hori justifikatzen duen dokumentua aurkeztu beharko da.

Udalei, horiek sustatutako garapen-agentziei edo -erakundeei eta tokiko beste erakunde batzuei ezingo zaie eskatu c) eta d) puntuetan eskatzen den dokumentazioa.

a) puntuan eskatutako dokumentazioa konfidentziala izango da.

3.– Erakunde eskatzaileek administrazio jardulearen esku dauden dokumentuak edo beste edozein administrazio egindakoak ez aurkezteko eskubidea dute, betiere, kontuan izanik Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren Azken Xedapenetako 12.ak zein idazketa eman dien Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluko 2. eta 3. apartatuei. Horretarako, erakunde eskatzaileak adierazi beharko du dokumentu horiek zer administrazio-organori eta noiz eman zizkion. Salbuespenez, administrazio publikoek ezin badituzte bildu aipatutako dokumentuak, berriz ere aurkezteko eskatu ahal izango zaio eskatzaileari.

4.– Nolanahi ere, Merkataritza Zuzendaritzak beste edozein dokumentu eta/edo informazio eskatu ahal izango die erakunde eskatzaileei, beharrezkotzat jotzen badu haiek aurkeztutako eskabidea behar bezala ulertu, ebaluatu eta tramitatu ahal izateko. Arau honetan berriaz aurreikusi ez diren gaietan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen xedatutakoa aplikatuko da.

5.– Administrazioak laguntzak ordaindu ahal izateko, erakunde onuradunak Eusko Jaurlaritzaren dagokion datu-basean agertu beharko du (Hirugarrenen Erregistro Elektronikoa). Alta emateko edo hirugarren interesdunen datuak aldatzeko, Eusko Jaurlaritzak emandako Hirugarrenen Erregistro Telematikora jo beharko da, honako helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/hirugarrenaren-datuak-aldaketa/> Bankuko datu horiek aktibo egongo dira laguntzaren ordainketak egin arte, hala badagokio.

6.– Bulegoaren harremanetarako datuak webgunean argitaratuko dira, zerbitzurako sarbidea emateko, merkataritza-establezimenduei eta hiriko merkataritza-jarduerarekin zerikusia duten zerbitzuei.

13. artikulua.– Aurkeztutako eskabidean eta dokumentazioan akatsak zuzentzea.

1.– Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Merkataritza Zuzendaritzak antzematen badu aurkeztutako eskabidean akatsen bat edo zehaztasunik ezaren bat dagoela, erakunde eskatzaileari hamar egun balioduneko epea emango zaio, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, hutsegitea zuzentzeko edo eskatzen zaizkion dokumentuak aurkezteko. Horrez gain, adieraziko zaio, hori egin ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko dela, 39/2015 Legearen 21. artikuluan aurreikusi moduan eman beharko den ebazpenaren bidez.

2.– Eskabidea egin ondorengo izapideak (espedientera sarbidea izatea, jakinarazpenak, errekerimenduak, dokumentazioa aurkeztea eta prozeduran inplikaturako gainerako izapideak) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko Egoitza Elektronikoko «Nire karpeta» aplikazioaren bidez soilik egingo dira (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta/>)

3.– Zuzentzeko errekerimenduaren jakinarazpen-sistemak aukera emango du egiaztatzeko noiz eta zein ordutan jarri den erakunde interesdunaren eskura jakinarazitako egintzaren edukia. Jasota baldin badago jakinarazpena egin dela, eta hamar egun natural igarotzen badira edukira sartu gabe, ulertuko da jakinarazpenari uko egin zaiola, eta izapidea egintzat joko da, eta prozedurak aurrera jarraituko du, betiere ofizioz edo erakunde hartzaileak eskatuta ez bada egiaztatzen teknikoki edo materialki ezinezkoa izan dela sartzea.

14. artikulua.– Laguntzak esleitzeko prozedura.

1.– Laguntzak emateko prozedura lehiaketa izango da, halakotzat hartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 51.4 artikuluan aurreikusitako prozedura.

Horretarako, aurkeztutako eskabide guztiak baloratuko dira eskabideen lehentasun-ordena ezartzeko, agindu honek I. eranskineko zona bakoitzerako ezartzen dituen hautaketa- eta balorazio-irizpideak kontuan harturik.

2.– Baldintza guztiak betetzen dituzten eskabideak ondoko irizpide eta haztapenen arabera baloratuko dira (guztira, 100 puntu jaso ahal izango dituzte):

A) Proposatutako jarduketa-proiektua: 50 puntu, gehienez.

Jardueren kalitatea eta Aginduaren 4.2 artikuluan adierazitako ekintza-ildoekin bat-etortzea:

a) Eraldaketa digitalarekiko sentsibilizazioa eta horrekin lotutako prozesuak bultzatzea: 6 puntu, gehienez.

b) Berrikuntzarekiko sentsibilizazioa eta horrekin lotutako prozesuak bultzatzea: 6 puntu, gehienez.

c) Kudeaketaren kalitatearekin lotutako prozesuak sentsibilizatzea eta bultzatzea: 5 puntu, gehienez.

d) Lankidetzaren prozesuak bultzatzea, hiri-eremuetan: 5 puntu, gehienez.

e) Lankidetzaren prozesuak bultzatzea, banaketa-katean: 5 puntu, gehienez.

f) Ekintzaitzaren eta enpresa-transmisioaren arloko prozesuen jarraipena egin eta horiek bultzatzea: 6 puntu, gehienez.

g) Udalerrietan eta/edo eskualdeetan hirugarren sektoreko estrategiak bultzatzea (ostalaritza, zerbitzuak, kultura, ondarea edo beste sektore batzuk): 5 puntu, gehienez.

h) Kontsumitzaileentzako balio erantsia sortzeko eta xede-publikoaren fideltasuna lortzeko ekintzak garatzea: 6 puntu, gehienez.

i) Garapen jasangarriarekin eta/edo energia-efizientziarekin lotutako estrategiak garatzea, baita autokontsumorako eguzki-energia fotovoltaikoa ezartzea sustatzen duten Energia Komunitateak sustatzea ere. 6 puntu, gehienez.

Jarduera bakoitza banan-banan baloratuko da honako irizpide hauen arabera, eta jarduera-ildo bakoitzean proposatutako ekintza guztien batezbesteko aritmetikoa kalkulatu da:

a) Aurkeztutako jardueren kalitate teknikoa.

Aurkeztutako dokumentazioaren kalitatea, azalpena eta erabilitako parametro teknikoak baloratuko dira.

b) Proposamena konpondu nahi den arazoari eta/edo premiari irtenbidea emateko egokia eta komenigarria den.

Honako alderdi hauek baloratuko dira: arazoaren edo beharraren azalpena, diagnostikoa, konpondu nahi diren arazoa eta premiak argi identifikatzen diren eta ekintzak nolako eragin positiboa izango duen arazoan edo beharrean, osotasunean edo partzialki.

c) Jarduketan ebaluazioa eta kontrola.

d) Dedikazioa eta inplikazioa.

B) Proposatutako egoitza: 8 puntu, gehienez.

B.1.– Proposatutako egoitzaren merkataritza-dentsitatea: 5 puntu, gehienez.

– Atal honetako puntuazioa kalkulatzeko, honako tarte hauek aplikatuko dira, bulego teknikoaren egoitza gisa aukeratutako udalerriko merkataritza-dentsitatearen koefizientearen arabera, VI. eranskinari jarraituz:

Udalerriko merkataritza-dentsitatearen koefizientea	Puntuazioa
≥ 16	5
< 16 eta ≥ 14	4
< 14 eta ≥ 12	3
< 12 eta ≥ 10	2
< 10	1

– Tokiko edo zonako bulegoetarako hautagai diren eskabideen kasuan, atal honetako puntuazioa gehienez puntu 1 handituko da, proiektua eremu bereko beste udalerrri batzuekin lankidetzan proposatzen bada (beste udalerrri batzuetako elkarteak, beste udalerrri batzuetako toki-erakundeak, mankomunitateak edo udalerrri anitzeko garapen-eragileak, besteak beste).

B.2.– Kokalekuaren hurbiltasuna eta irisgarritasuna: 3 puntu, gehienez.

a) Kalean bertan: puntu 1.

b) Merkataritza-ingurunea: puntu 1.

c) Kanpotik ikusteko eta identifikatzeko modukoa: puntu 1.

C) MBTko teknikariak: 18 puntu, gehienez.

C.1.– Hizkuntzak: 8 puntu, gehienez.

a) Euskara: 4 puntu, gehienez.

i) 4 puntu, C2 maila edo baliokidea egiaztatzeagatik.

ii) 3 puntu, C1 maila edo baliokidea egiaztatzeagatik.

iii) 2 puntu, B2 maila edo baliokidea egiaztatzeagatik.

iv) 1 puntu B1 maila edo baliokidea egiaztatzeagatik.

b) Ingelesa: 2 puntu, gehienez.

i) 2 puntu, C2 maila edo baliokidea egiaztatzeagatik.

ii) 1,5 puntu, C1 maila edo baliokidea egiaztatzeagatik.

iii) 1 puntu, B2 maila edo baliokidea egiaztatzeagatik.

iv) 0,5 puntu, B1 maila edo baliokidea egiaztatzeagatik.

c) Frantsesa: 2 puntu, gehienez.

i) 2 puntu, C2 maila edo baliokidea egiaztatzeagatik.

ii) 1,5 puntu, C1 maila edo baliokidea egiaztatzeagatik.

iii) 1 puntu, B2 maila edo baliokidea egiaztatzeagatik.

iv) 0,5 puntu, B1 maila edo baliokidea egiaztatzeagatik.

C.2.– Lehentasunezko unibertsitate-titulu ofiziala: puntu 1.

6. artikuluko 4. puntuan eskatutako unibertsitate-titulua lehentasunezkoa bada, hau da, Gizarte Zientzien edo Zientzia Juridikoen adarrekoa, merkataritzaren eta enpresaren arlokoa.

C.3.– Beste titulu ofizial batzuk: 1 puntu, gehienez.

i) 0,1 puntu, merkataritzaren eta enpresaren arloko goi-mailako prestakuntza-zikloko titulazioengatik.

ii) 0,25 puntu, 6. artikuluko 4. puntuan eskatutako baldintza gisa egiaztatutako titulazioaz gain aurkeztutako unibertsitate-titulu bakoitzeko.

iii) 0,5 puntu, master ofizialeko titulu bakoitzeko.

ii) eta iii) ataletako puntuazioa bi bider handituko da Gizarte Zientzien edo Zientzia Juridikoen adarreko lehentasunezko unibertsitate-titulu ofizial bat bada, merkataritzaren eta enpresaren arlokoa.

C.4.– Laneko esperientzia: 8 puntu, gehienez.

i) 0,5 puntu, MBT bati atxikitako merkataritza-teknikari gisa egindako urte bakoitzeko.

ii) 0,25 puntu, merkataritza-sektoreko edo hari lotutako arloetako esperientzia-urte bakoitzeko. MBT batean merkataritza-teknikari gisa egiaztatutako urteak ez dira zenbatuko merkataritza-sektoreko esperientzia gisa.

D) Lankidetzaren publiko-pribatua eta jarduera-eremuko erakundearen proiektuarekiko inplikazioa: 8 puntu, gehienez.

i) 1 puntu, aurkeztutako hitzarmen bakoitzeko; 4 puntu, gehienez.

ii) Lankidetzaren egituraren sendotasun-maila: 4 puntu, gehienez.

Merkatarien elkarte, elkarte-talde eta federazioen kasuan, erakunde publikoekiko hitzarmenak bakarrik hartuko dira kontuan. Udalen, haiek sustatutako garapen-agentzien eta -erakundearen eta tokiko beste erakunde batzuen kasuan, tokiko merkataritza-elkarteekiko (merkatarien elkarteak, elkarte-taldeak eta federazioak) hitzarmenak bakarrik hartuko dira kontuan.

E) Proiektuan genero-ikuspegia sartzea: 10 puntu, gehienez.

E.1.– Proiektua genero-ikuspegia kontuan harturik planifikatu, garatu eta ebaluatzea: 5 puntu, gehienez.

i) Puntu 1, gehienez, erakundearen eginkizunean, ikuspegiaren eta/edo helburu estrategikoetan emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde egitea kontuan hartzeagatik eta barneratzeagatik.

ii) 2 puntu, gehienez, genero-ikuspegia proiektu osoan zeharka txertatzeagatik.

iii) 2 puntu, gehienez, aplikatutako berdintasun-neurriak neurtu eta ebaluatzeagatik.

E.2.– Berdintasunaren arloko ekintza zehatzak garatzea: 0,5 puntu, honako kontzeptu hauetako bakoitzeko (3 puntu, gehienez):

i) Proiektuan, sektoreko bere jardun-eremuko emakumeen eta gizonen berdintasun-egoerari buruzko diagnostikoa edo analisia egitea edo diagnostiko edo analisi hori egitea proiektuaren parte gisa sartzea.

ii) Sektoreari zuzendutako berdintasun-arloko prestakuntza-ikastaroren bat ematea edo erakundeak sustatutako sektoreko prestakuntzetan genero-ikuspegia zeharka sartzea.

iii) Sektorean matxismoarekin, sexu-joerarekin edo genero-identitatearekin lotutako indarkeria saihesteko eta horri aurre egiteko protokolo bat edo neurri espezifikoak lantzea eta zabaltzea.

iv) Sektorean genero-hizkuntza erabiltzeko protokolo espezifiko bat onartzea eta zabaltzea, hizkuntzaren erabilera ez-sexista sustatzeko, eta, hala, estereotipo sexistak saihestu ez ezik, berdintasunaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren eta genero-rolen eta -identitateen aniztasunaren balioetan oinarritutako irudi bat sustatzeko.

v) Erakundearen genero-hizkuntza eta berdintasunezkoa erabiltzeko protokolo espezifiko bat onartzea eta zabaltzea, eta, horren ondorioz, proiektua edo jarduketa gauzatzekoan sortzen den dokumentazio, publizitate, irudi eta material guztietan hizkera ez-sexista erabiltzea, emakumeen kontrako bereizkeria edo estereotipo sexistak bultzatzen dituzten irudiak saihestea, eta berdintasunean, presentzia orekuan, aniztasunean, erantzunkidetasunean eta genero-rolen eta -identitateen aniztasunean oinarritutako irudi bat bultzatzea.

vi) Proiektua egikaritzen duten langileentzat edo sektorekoak eta bere jardun-eremukoak diren pertsonentzat bizitza pertsonala, lana eta familia uztartzeko neurriak diseinatzea, ezartzea eta aplikatzea.

vii) Emakumeen eta gizonen aukera- eta tratu-berdintasuna sustatzen eta bermatzen dituzten aurrekoak ez bezalako ekintzak sartzea.

viii) Emakumeen ahalduntzea bultzatzen eta babesten duten eta/edo emakumeak proiektuetan inplikatzeko sustatzen duten eta/edo haien berdintasunaren alde egiten duten ekintzak sartzea.

ix) Emakume-elkarte batekin edo emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko helburu espezifikoak duen erakunde batekin lankidetzak ekintzak egitea.

x) Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasuneko Lankidetzak Erakunde izendapena izatea, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak edo beste edozein administrazio publikok egina.

xi) Berdintasun-plan bat edukitzea, lege horretara behartuta egon gabe.

E.3.– Erakunde eskatzailearen gobernu-organoko kideen artean genero-pareotasuna dagoela egiaztatzea: 2 puntu, emakumeak % 40 edo gehiago badira.

F) Egindako gastua bazkideen kuoten bidez ordaintzea: 6 puntu, gehienez.

%	N/A edo 0	< % 10	>= % 10 eta < % 20	>= % 20 eta < % 30	>= % 30 eta < % 40	>= % 40 eta < % 50	>= % 50
Puntuak	0	1	2	3	4	5	6

Erakunde eskatzaileen izaera juridikoa desberdina den zonetan, guztiei puntuazio bera emango zaie, irizpide bateratuak erabiltzeko.

3.– Nahitaezkoa izango da gutxienez ekintza bat aurkeztea honako jardueraren ildo hauetako bakoitzerako: a) Eraldaketa digitalarekiko sentsibilizazioa eta horrekin lotutako prozesuak bultzatzea, eta i) Garapen jasangarriarekin eta/edo energia-efizientziarekin lotutako estrategiak garatzea, baita autokontsumorako eguzki-energia fotovoltaikoa ezartzea sustatzen duten Energia Komunitateak sustatzea ere.

4.– A atalean gutxienez 25 puntu eta irizpide guztien baturan 50 puntu edo gehiago lortzen dituzten eskabideek soilik jaso ahal izango dute dirulaguntza.

5.– Aurkeztutako proiektuko ekintza bakar bat ere ez da baloratuko «A) Jardueren kalitatea eta Aginduan adierazitako ekintza-ildoekiko bat-etortzea» ataleko apartatu batean baino gehiagotan, eta ezingo dira zatitu proposatutako ekintzen kopurua handitzeko.

6.– Balorazio onena atera duten eskabideek jasoko dute dirulaguntza, balorazio horren ondorioz atera den ordenaren eta puntuazioaren arabera, zona bakoitzerako deitutako bulegoen kopurua osatu arte. Zona jakin baterako deitutako bulego guztiak esleitzen ez badira, sobera daudenak 2. artikuluko 2. puntuan ezarritako irizpidearen arabera banatuko dira.

7.– Dirulaguntzen zenbatekoa 7. artikuluan deskribatutako prozeduraren arabera erabakiko da, ezarritako gehieneko dirulaguntza-zenbatekoak eta aurrekontu-zuzkidurak errespetatuz.

15. artikulua.– Ebaluazio-batzordea.

Ebaluazio-batzorde batek espedienteak aztertuko ditu, arau erregulatzailan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatuko du, 14. artikuluan jasotako irizpide eta haztapenen arabera baloratuko ditu, eta prozedura ebazteko proposamena egingo dio eskumena duen organoari, eman beharreko laguntzak eta ukatu beharreko eskabideak jasota.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Merkataritza Zuzendaritzari atxikitako bost pertsona hauek osatuko dute ebaluazio-batzordea:

- Merkataritza Zuzendaritzako Antolamendu, Sustapen eta Lehiakortasuneko arduraduna izango da batzordeburu. Haren ordezkoa Merkataritza Zuzendaritzako teknikari bat izango da.
- Merkataritza Zuzendaritzako 3 teknikari.
- Merkataritza Zuzendaritzako teknikari bat izango da idazkari (botorik gabe).

Eskabideak I. eranskinean adierazitako zona bakoitzerako baloratu ostean, ebaluazio-batzordeak ebazpen-proposamena helaraziko dio Merkataritza Zuzendaritzako titularrari. Proposamen horretan, emango edo ukatuko dituen dirulaguntzak adieraziko ditu batzordeak, eta, emango dituen dirulaguntzen kasuan, datu hauek zehaztuko ditu: erakunde onuradunen izen soziala, proposatutako dirulaguntzaren zenbatekoa eta dirulaguntza horren banaketa, urteka. Ukatzen diren dirulaguntzen kasuan, erakunde eskatzaileen izena eta dirulaguntza ukatzeko arrazoiak emango dira.

16. artikulua.– Kudeaketa, ebazpena, errekurtsioak, ebazteko eta jakinarazteko epeak, eta jakinarazteko eta argitaratzeko modua.

1.– Aurkeztutako eskabideak dagokien prozeduraren bidez izapidetuko dira. Merkataritza Zuzendaritzako titularrari dagokio horiek ebatzi eta jakinaraztea, ebaluazio-batzordearen proposamenari jarraituz.

2.– Ebazpena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, eta jakinarazitzat emango da argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Honako hau da iragarki-taulan sartzeko helbidea: <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>. Argitalpenaren komunikazio elektronikoa egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalera jo beharko da: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

3.– Lau hilekoa izango da prozedura ebazteko eta ebazpena pertsona interesdunei jakinarazteko gehieneko epea, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera; epea igaro eta aurreko apartatuan adierazitako argitalpena egin ez bada, dirulaguntzaren eskabidea ezetsi egin dela ulertu beharko dute interesdunek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1.a) artikuluan xedatutako ondorioetarako.

4.– Laguntza emateari buruzko ebazpenak ez dio administrazio-bideari amaiera ematen, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Turismo eta Merkataritza Sailburuordetzako titularrari, hilabeteko epean jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluei jarraikiz.

5.– Agindu honetan aurreikusitako dirulaguntzak eman edo, hala badagokio, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da 11. artikuluko 9. puntuan ezarritako betebeharrak betetzea. Prozedurak, amaieran, laguntza publikoak eskuratzeko desgaitasuna bada, edo laguntza itzultzeko betebeharrak ezartzen badu, eta dirua ez bada itzuli borondatez itzuli beharreko epean, baldintzapean emandako dirulaguntza indargabetu egingo da, onuradun izateko debekua izateagatik.

6.– Merkataritza Zuzendaritzari dagokio agindu honetan aurreikusitako laguntzak kudeatzeko lanak egitea, beste organo batzuei berariaz izendatzen zaizkien gaitan izan ezik.

17. artikulua.– Dirulaguntzak ordaintzea.

Honela ordainduko dira dirulaguntzak:

a) Lehen ordainketa, hots, emandako dirulaguntzaren % 80, dirulaguntza emateko ebazpenaren ondoren egingo da, 19.a) artikuluan aurreikusitako epea igarotzean, tartean berariaz dirulaguntzari uko egin ez bazaio. Erakunde onuradunak aldeaz aurretik aurkeztu beharko du zerbitzua emateko kontratuaren kopia, dirulaguntza emateko jakinarazpena iragarki-taulan argitaratu eta hilabeteko epean gehienez ere, eta diruz lagundutako epe osoan zehar egon beharko da indarrean.

b) Bigarren ordainketa, hots, emandako dirulaguntzaren % 10, erakunde onuradunak sei hilean behingo jarraipen-memoria aurkeztu ondoren egingo da, 19.d) artikuluan ezarritakoaren arabera.

c) Gainerako zenbatekoa, hau da, emandako dirulaguntzaren % 10, emandako dirulaguntza 18. artikuluan arabera justifikatu eta likidatu ondoren ordainduko da, hala badagokio eta emandako dirulaguntzaren zati bat itzultzea ekarriko lukeen gutxitzerik eragiten ez bada.

d) Ordainketa horiek egiteko, onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean eduki behar ditu, eta dirulaguntza eskuratzeko baldintza guztiak bete behar ditu dirulaguntzak irauten duen aldi osoan.

18. artikulua.– Dirulaguntzaren justifikazioa.

1.– Justifikaziora sartzea eta berori betetzea egoitza elektronikoaren bidez soilik egin ahalko da, honako helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>

2.– Deialdi honetako justifikazio-agiriak jasotzeko epea dirulaguntza jaso duen jarduera amaitu eta hurrengo bi hilabeteetan amaituko da, eta, edozein kasutan, 2024ko azaroaren 30a baino lehen. Epe hori igaro eta justifikaziorik aurkeztu ez bada, 10 egun balioduneko epe luzaezina emango zaio erakunde onuradunari, agiriak aurkez ditzan. Justifikazioa ezarritako epean aurkezten ez bada, ez-betetzea gertatuko da, eta, ondorioz, ordaindutako dirulaguntza itzuli beharko da, bai eta berandutze-interesak ere, 698/1991 Dekretuaren 5. artikuluan adierazitako administrazio-espeditentaren izapidetzea egin ondoren (698/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren dirulaguntzen bermeen eta itzulketen araubide orokorra arautzen duena, eta kudeaketan parte hartzen duten entitate laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta obligazioak ezartzen dituena).

3.– Erakunde onuradunek justifikatu egin beharko dute ezarritako baldintzak betetzen dituztela eta laguntzaren helburua lortu dutela. Horretarako, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

a) Justifikazio-formularioa, VII-A eranskinean ezarritako ereduaren arabera.

b) Eskabidean aurkeztutako agente-aula, V. eranskinean ezarritako formatuaren arabera, eguneratuta eta eskabidean ezarritako helburuen betetze-maila adierazita.

c) Eskabidean aurkeztutako kronograma, IV. eranskinean ezarritako formatuaren arabera, eguneratuta eta eskabidean ezarritako helburuen betetze-maila adierazita.

d) Egindako izapideen laburpen-aula, VII-B eranskinean ezarritako ereduaren arabera.

e) Diruz lagundutako jardueraren kostua justifikatzeko memoria ekonomikoa, VII-C eranskinean ezarritako ereduaren arabera.

f) Proiektuaren garapenari buruzko memoria laburtua, diruz lagundutako jarduerak benetan egin direla egiaztatzeko. Hasieran aurkeztutako proiektuarekiko desbideratze oro justifikatu beharko da, bai eta proiektuaren bidez lortu nahi ziren helburuen ebaluazioa eta betetze-maila ere.

g) Proiektuaren gastu guztien egiaztapenak eta gastu bakoitzaren ordainketaren egiaztapena.

i) Bulegoko teknikarien nominak. Proiektua gauzatu bitartean teknikariak aldi baterako ezintasun-egoeran badaude, langileen izen-zerrenda (RNT, lehengo TC2) aurkeztu beharko da.

ii) Kotizazioen likidazioaren ordainagiria (RLC, lehengo TC1).

iii) Aurkeztutako PFEZaren aitortpenak.

iv) BGAEei edo gizarte-aurreikuspeneko beste sistema batzuei egindako ekarpenak.

v) Profesional independenteen fakturak.

h) Eskabidea aurkeztu ondoren xede bererako lortu diren beste laguntza edo dirulaguntza guztien zerrenda.

i) Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduko 22.2 artikuluan identifikatzen diren administrazio-ziurtagiri positiboak, baldin eta eskatzaileak aurka egiten badio kudeaketa-organoak zuzenean agiri horiek eskuratzeari.

4.– Kasu guztietan, finantzatutako jarduerari lotutako beste edozein agiri aurkeztu beharko da, baldin eta Merkataritza Zuzendaritzak eskatzen badu eta justifikatutako jarduketak osorik egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen bada.

5.– Emandako dirulaguntza likidatzeko, justifikatutako gastuak aztertuko dira, eta egiaztatuko da laguntzaren xede diren jarduketan gauzatze egokiak agindu honetan ezarritako baldintzak betetzen dituela eta diruz lagundutako proiektura egokitzen dela.

6.– Dokumentazioa egiaztatzean ikusten bada zuzendu daitezkeen akatsak daudela dirulaguntzaren erakunde onuradunak aurkeztu dituen justifikazio-agirietan, erakunde onuradunari inguruabar hori jakinaraziko zaio, eta hamar egun balioduneko epea emango zaio akatsak zuzentzeko.

7.– Hala ere, dirulaguntzaren justifikazioan aurkeztutako gastu guztiak onartzen ez badira eta horrek emandako dirulaguntza gutxitzea badakar, Merkataritza Zuzendaritzako titularrari dirulaguntzaren likidazioa proposatu baino lehen, hamar egun balioduneko entzunaldi-izapidea emango zaio erakunde interesdunari, aurkeztutako dokumentazioa zuzen dezan, hala badagokio.

8.– Aipatutako alderdi guztiak egiaztatu ondoren, Merkataritza Zuzendaritzako titularrak dagoen likidazio-ebazpena emango du, teknikarien txostena kontuan hartuta.

19. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Agindu honetan araututako dirulaguntzen erakunde onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte, hargatik eragotzi gabe azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.2 artikuluan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. eta 45. artikuluetan eta indarreko araubideak zehaztutako beste xedapen aplikagarri batzuetan ezarritako betebeharrak:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Hori dela eta, dirulaguntza eman zaiela argitaratu eta hamar egun naturaleko epean erakunde onuradunek ez badiote dirulaguntzari espresuki uko egingen, onartu egin dutela ulertuko da.

b) Dirulaguntza eman den xederako erabiltzea eta aurkeztutako proiektua esleitutako eremuan gauzatzea.

c) Esleitura duten eremuko elkarte eta merkatari guztiei doan zerbitzu ematea. Zentzu horretan, ez da beharrezkoa izango merkatariak eta/edo elkarteak elkarte onuraduneko bazkideak edo kideak izatea, onuradunak eskaintzen dituen eta agindu honen xede diren zerbitzuak eskuratzeko. Era berean, erabiltzaileek arreta Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan jasotzeko eta horiek erabiltzeko duten eskubidea bermatuko da.

d) Bulego teknikoak epealdi horren barruan egindako jarduera zehatzak, planteatutako helburuen lorpenean egindako aurrerapausoen balorazioa eta hurrengo seihilekoari begira ekintzen birbideratze posible bat jasotzen dituen laburpen-txosten bat aurkeztea, eskabideen aplikazio informatiko bera erabiliz, <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta> helbidearen bitartez eta dagokion exekuzio-aldiko lehen seihilekoa amaitu osteko 10 egun baliiodunen barruan. Memoriarekin batera, lan-planaren kronograma eta aginte-taula eguneratuak aurkeztu beharko dira, IV. eta V. eranskinetan ezarritako formatuen arabera, eskabidean aurkeztutako proiektuaren aurrerapen-maila adieraziz; horrez gain, ordura arte egindako izapideen laburpen-taula aurkeztu beharko da, VII-B eranskinetan ezarritako formatuaren arabera egina.

e) Merkataritza Zuzendaritzak deitzen dituen bileretara, hitzaldietara eta prestakuntza- edo teknifikazio-ikastaroetara joatea, kontratatutako teknikariaren bitartez, gainerako bulegoekin espezializazioak eta jardunbide egokiak trukatu ahal izateko.

f) Dirulaguntzak ematerakoan eskatu eta kontuan hartu den betekizunen batean aldaketaren bat izan bada, Merkataritza Zuzendaritzari horren berri idatziz ematea, eskabidea egiteko unean nahiz ondoren, aldaketa hori eragin duten inguruabarrak gertatu aurreko 10 egun baliioduneko epean, gehienez ere.

g) Dirulaguntza emango duen erakundeari egiaztatzea laguntza jasotzeko eskakizun eta baldintza guztiak betetzen direla, eta gauzatu dela dirulaguntza emateko edo baliatzeko arrazoia izan den jarduera, 18. artikulua zehaztutakoaren arabera.

h) Eskatzen zaien informazio osagarri guztia eman beharko diote Merkataritza Zuzendaritzari, hark egoki irizten dituen egiaztapen guztiak egin ditzan diruz lagundutako jardueren garapenaren eta gauzatze-lanen inguruan.

i) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, beren eginkizunetan dihardutela, deialdi honen kontura jasotako dirulaguntzei buruzko informazioa ematea.

j) Lan-arloko araudia betetzea, baita aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa ere, halakorik bada.

k) Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan eta Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoan ezarritakoa betetzea, eta 1/2023 Legegintzako Dekretuak Administrazioaren laguntzak kontratatzen, hitzartzen edo jasotzen dituzten erakundeei ezarritako betebeharrak onartzea. Zehazki, diruz lagundutako jarduerarekin lotutako egintzetan ez da hizkera sexistarik erabiliko, eta emakumeen eta gizonen rolei dagokienez erabilera estereotipaturik ez egitea bermatuko da. Halaber, emakumeen eta gizonen egoeran izandako eragina ezagutzeko, dirulaguntzak emateko

ezarritako betebeharrak betetzen direla justifikatzeko memorieta, emandako zerbitzuaren onuradunei edo azken erabiltzaileei buruzko informazioa sexuaren arabera banatuta jasoko da.

l) Entitate onuradunek, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 18. artikuluan adierazten den publizitate-betebeharra betetze aldera, laguntzen deialdi honetan lortutako dirulaguntzaren berri emango diote publiko orokorrari. Programaren finantzaketa publikoaren publizitate egokia egiteko, berariaz adierazi beharko da Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren laguntzaz finantzatu dela, Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Nortasunaren Eskuliburuaren eta Merkataritzako Bulego Teknikoen Marka Eraikitze Eskuliburuaren arabera. Horretarako:

- Beren webgunean diruz lagundutako proiektuaren deskribapena egingo dute.
- Bulego teknikoaren presentzia etengabe eta ikusteko moduan identifikatuko dute.
- MBTko teknikariek egindako komunikazio eta ekintza guztietan berariaz aipatuko da agindu honen bidez araututako dirulaguntzaren babesean lortutako kofinantzaketa.

m) Kontratututako pertsonari bere eginkizuna garatzeko behar duen ekipamendu material guztia helaraziko zaio: ekipamendu informatikoa, telefonoa eta abar.

n) MBTko teknikariek merkataritza-sektorerara bideratutako laguntza teknikoa ematen badute agindu honen esparruan jasotako eginkizunak lanaldi osoan betetzen ari direla, ezingo da kontraprestazio ekonomikorik jaso, ez norberaren onurarako, ez zuzenean edo zeharka dagokion erakunde onuradunarentzat.

20. artikulua.– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

1.– Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 49.12 artikuluan ezarritakoaren arabera, dirulaguntza emateko kontuan izandako baldintzaren bat aldatzen bada, edo, hala badagokio, ondoren berariaz aldatzeko onartzen badira, edo edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuen dirulaguntzak eskuratu baldin badira aldi berean, edo, bestela, helburu bera aurrera eramateko bestelako diru-sarrera edo baliabideak lortu badira, laguntza emateko erabakia aldatu egin ahal izango da, baldin eta dirulaguntzaren helburua bete dela ulertzen bada, eta dirulaguntzaren arauak onuradun izateko ezartzen dituen gutxieneko baldintzak bete badira.

2.– Horretarako, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren zerbitzu teknikoaren proposamenari jarraituz, Merkataritza Zuzendaritzako titularrak dagokion ebazpena emango du emandako dirulaguntzen zenbatekoak egokitzeko; hala ere, horrek ez du berekin ekarriko hasieran emandako dirulaguntzaren zenbatekoa handitzea. Hala badagokio, adieraziko du ordaindutako dirulaguntzatik zenbat itzuli behar den, eta erakunde onuradunak jaso dituzten gehiegizko zenbatekoak itzultzera behartuta geratuko dira.

3.– Bulegoko arduraduna ordezkatzeko (6. artikuluko 5. puntuaren arabera) edo dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan beste aldatetaren bat egiteko, aldateta-eskabide bat aurkeztu beharko da, eta aski justifikatu beharko da, eskabide horretan nahiz horrekin batera aurkeztutako memoria batean, ez dela oinarritzeko aldatetarik egin dirulaguntza emateko funtsezkoak edo erabakigarriak izan diren alderdietan, eta ez dela urratu hirugarrenen interesik.

Eskatutako aldateta justifikatzeko kausak suertatu eta berehala komunikatu beharko dira, gehienez 10 egun balioduneko epean, aldateta gauzatu baino lehen, eta Merkataritza Zuzendaritzaren onarpena eduki beharko da.

Aldaketa-eskabidean, edo horrekin batera aurkeztutako dokumentazioan, argi eta garbi jaso behar da zergatik aldatu diren laguntzaren baldintzak, eta zehatz-mehatz azaldu behar da zer betebeharrak berri hartuko diren aldaketa onartzen bada, eta zer baldintza bete beharko diren. Inguaruabar horiek egokiak, dokumentatuak, proportziozkoak eta zentzuzkoak izan beharko dira, eta hala egiaztatuta geratu beharko dira eskabidean.

21. artikulua.– Dirulaguntzaren likidazioaren ebazpena.

1.– Dirulaguntzaren justifikazioan aurkeztutako dokumentazioa ikusirik, Merkataritza Zuzendaritzako titularrak dagokion likidazio-ebazpena emango du kasu hauetan:

a) Dirulaguntzaren justifikazio ekonomikoan beheranzko desbideratze bat badago, % 20tik beherakoa, eskabidean balioetsitako eta dirulaguntza emateko kontuan hartutako soldata-kostuarekiko, eta dirulaguntza txikiagoa badagokio 7. artikuluan dirulaguntza kalkulatzeko ezartzen dituen irizpideak aplikatu ondoren, berriz kalkulatu da dirulaguntza, hasieran zenbat emango zen kalkulatzeko erabilitako irizpide berberak aplikatuz, eta hala badagokio, adieraziko da ordaindutako dirulaguntzatik zenbat itzuli behar den, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren arabera (Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeen eta itzulketen araubide orokorra arautzen duena).

b) Justifikazio ekonomikoko desbideratzea % 20koa edo handiagoa bada, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdu egin daiteke, emandako dirulaguntzaren bidez lortu nahi ziren helburu guztiak bete direla justifikatzen denean izan ezik. Bigarren kasu horretan, aurreko paragrafoan aurreikusitako moduan murriztuko da dirulaguntzaren zenbatekoa.

2.– Aipatutako alderdi guztiak egiaztatu ondoren, Merkataritza Zuzendaritzako titularrak dagokion likidazio-ebazpena emango du, teknikarien txostena kontuan hartuta.

22. artikulua.– Ez-betetzea.

1.– Honako hauek dira ez-betetzeak:

a) Jasotako dirulaguntzak agindu honetan adierazitako jardueren bestelakoetan erabiltzea, osorik edo partzialki.

b) Agindu honetan xedatutako betebeharrak ez betetzea.

c) Emateko ebazpenean ezartzen diren baldintzak, halakorik izanez gero, ez betetzea.

2.– Enpresa onuradunak ez badu betetzen Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 53. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legearen 37. artikuluan xedatzen dena, deialdi honetan eta betetzekoak diren gainerako arauetan ezarritako eskakizunak eta, hala dagokionean, ebazpenean ezartzen diren eskakizunak, organo eskudunak ez-betetze horri buruzko txostena egingo du, eta, ondoren, interesdunari entzungo dio. Hari entzun ondoren, ebazpen bidez adieraziko du dirulaguntza eskuratzeko eskubide osoa edo partziala iraungi zaiola, eta, hala badagokio, jasotako laguntzak eta berandutze-interesak Euskadiko Diruzaintza Nagusiari itzuli behar dizkiola, osorik edo partzialki, betearazpen-mailarekiko modu proportzionalan, aintzat hartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta itzulketei buruzko abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginak arautzen dutena, eta, itzulketa partzialen kasuan, 38/2003 Legearen 37. artikuluan aipatutakoak arautzen duena, egoki diren gainerako ekintzen kalterik gabe. Aipatutako zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat hartuko dira lege-ondorio guztietarako.

3.– Dirulaguntzarako eskubidea galtzeko edo dirulaguntza itzultzeko prozedura administrazioko arau-haustea eragin duten gertakarien ondorioz hasten bada, organo eskudunari jakinaraziko zaizkio gertakari horiek, dagokion zehapen-prozedurari hasiera eman diezaion.

23. artikulua.– Ikuskapena.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak egoki irizitako ikuskaritza eta egiaztapen guztiak egingo ditu, diruz lagundutako jarduketan garapenari eta egikaritzeari dagokienez; horrela, era-kunde onuradunek eskatzen zaien informazio osagarri guztia aurkeztu beharko dute, hargatik eragotzi gabe Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egin dezaketan kontrola, beren eginkizunak egikaritzean, jasotako laguntzei dagokienez.

24. artikulua.– Datu pertsonalak.

Eskatzaileen datu pertsonalak «Merkataritza-arloko laguntzak eta dirulaguntzak» izeneko tratamendu-jardueran sartu eta tratatuko dira.

Datu pertsonalak honako arau hauen arabera tratatuko dira: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa; 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babes-teari buruzkoa.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraz, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuari, hilabeteko epean; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erki-degoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean. Bi kasuetan, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira epeak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abuztuaren 29a.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua,
JAVIER HURTADO DOMÍNGUEZ.

2023ko irailaren 5a, asteartea

I. ERANSKINA

I) ZONAREN EDO TOKIAREN ARABERAKO JARDUN-EREMUA ETA HERRI NAGUSIAK

Zona	Bulego-kopurua
Araba/Álava:	
1. zona. Vitoria-Gasteiz	1
2. zona. Laudio/Llodio, Amurrio, Urduña/Orduña	2
3. zona. Arabako Errioxa, Agurain/Salvatierra, Arabako Mendialdea, Gorbeialdea, Añana	1
Bizkaia:	
4. zona. Bilbao	2
5. zona. Portugalete, Santurtzi	2
6. zona. Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena, Muskiz, Ortuella, Valle de Trápaga-Trapagaran	1
7. zona. Barakaldo, Sestao	2
8. zona. Erandio, Leioa	1
9. zona. Mungialdea, Gorniz, Plentzia, Sopela, Txorierrri, Urduliz	1
10. zona. Getxo, Berango	2
11. zona. Gernika-Lumo, Bermeo, Lekeitio, Markina-Xemein, Ondarroa	2
12. zona. Basauri, Arrigorriaga, Etxebarri, Galdakao, Igorre	2
13. zona. Durango, Abadiño, Amorebieta-Etxano, Elorrio, Berriz, Iurreta, Zaldibar	2
14. zona. Balmaseda, Alonsotegi, Gúeñes, Zalla	1
Gipuzkoa:	
15. zona. Donostia / San Sebastián	1
16. zona. Irun, Hondarribia	2
17. zona. Errenteria, Lezo, Oiartzun, Pasaia	1
18. zona. Hernani, Andoain, Astigarraga, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil	1
19. zona. Tolosa, Ibarra, Villabona	2
20. zona. Zumarraga, Legazpi, Urretxu	2
21. zona. Zarautz, Deba, Getaria, Mutriku, Orío, Zumaia	1
22. zona. Eibar, Elgoibar, Ermua, Mendaro, Sorluze-Placencia de las Armas	2
23. zona. Arrasate/Mondragón, Aretxabaleta, Bergara, Eskoriatza, Oñati	1
24. zona. Beasain, Azkoitia, Azpeitia, Lazkao, Ordizia, Zestoa	2

II) LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERAKO JARDUN-EREMUA

Zona	Bulego-kopurua
25. zona. Araba/Álava	3
26. zona. Bizkaia	4
27. zona. Gipuzkoa	4

III) LURRALDEKO GREMIOKO JARDUN-EREMUA

Zona	Bulego-kopurua
28. zona. Lurraldeko gremiokoa	2

2023ko irailaren 5a, asteartea

II. ERANSKINA

Merkataritzako Bulego Teknikoen funtzionamendurako laguntzak
(MBT 2022-2023) - ERREF.: 1026910

ESKABIDEA

ESKABIDE-EREDUA

1.- ESKATZAILEA

Titularra	
Ordezkarria	
Instrukzio-organo honi zuzendua: Merkataritza Zuzendaritza	

2.- ESKATZAILEAREN DATUAK

ESKATZAILEA		
Identifikazio-dokumentua		
Zenbakia		
Erakundearen izena:		
Erakundea:	Elkartea / Federazioa / Elkarte-taldea <input type="checkbox"/>	Udala / Garapen-erakundea / Tokiko beste erakunde batzuk <input type="checkbox"/>

Ordezkarria		
Identifikazio-dokumentua		
Zenbakia		
Pertsona juridikoa bada:		
Erakundearen izena:		
Pertsona fisikoa bada:		
Izena:		
1. abizena:		
2. abizena:		
Sexua:	Gizona <input type="checkbox"/>	Emakumea <input type="checkbox"/>

LEGEZKO ORDEZKARIA				
Zenbakia	Izena	Lehen abizena	Bigarren abizena	Sexua

Egoitza soziala		
Helbidea (kalea):		
Zenbakia	Solairua	Aldea
Udalerrria	PK	
Lurralde Historikoa		

2023ko irailaren 5a, asteartea

3.– DIRUZ LAGUNDU DAITEKEEN JARDUKETA

ESKATZEN DU			
Merkataritzako Bulego Teknikora bideratutako laguntza, deialdi honetan aurreikusitakoa.			
Eremua:	<input type="checkbox"/> Zona edo tokiko eremua	<input type="checkbox"/> Lurralde-eremua	<input type="checkbox"/> Lurraldeko gremio-eremua
Zona (l. eranskinaren arabera):			
Bulego Teknikoaren arduradunaren soldata-kostu balioetsia (eurotan)			
Eskatutako dirulaguntza soldata-kostu balioetsiaren % 90 da; gehienez ere, 40.000,00 euro.			
Eskatutako dirulaguntza (eurotan)			
Diruz lagunduko den urtebeteko denbora-tartearen hasierako data:			

BULEGO TEKNIKOARI BURUZKO DATUAK			
Bulegoaren egoitza			
Probintzia:		Posta-kodea:	
Herria:		Udalerria:	
Helbidea:			
Telefonoa:		Mugikorra:	
Helbide elektronikoa:			
Jendearen arretarako ordutegia:			
Kokapena:	<input type="checkbox"/> Kalean bertan	<input type="checkbox"/> Merkataritza-ingurunea	<input type="checkbox"/> Kanpotik ikusteko eta identifikatzeko modukoa

2023ko irailaren 5a, asteartea

BULEGOKO TEKNIKARIAK				
Izena:				
Titulazioa:				
Lehentasunezkoa:	<input type="checkbox"/> Lehentasunezko unibertsitate-titulazio ofiziala, Gizarte Zientzien edo Zientzia Juridikoen adarrekoa, merkataritzaren eta enpresaren arlokoa			
Kategoria/Talde profesionala (kontratua inskribatzeko eta Gizarte Segurantzarako):				
Euskara-titulua	B1 <input type="checkbox"/>	B2 <input type="checkbox"/>	C1 <input type="checkbox"/>	C2 <input type="checkbox"/>
Ingeleseko titulua	B1 <input type="checkbox"/>	B2 <input type="checkbox"/>	C1 <input type="checkbox"/>	C2 <input type="checkbox"/>
Frantseseko titulua	B1 <input type="checkbox"/>	B2 <input type="checkbox"/>	C1 <input type="checkbox"/>	C2 <input type="checkbox"/>
Beste titulazio ofizial batzuk: (Nahi beste aldiz errepikatu)				
Esperientzia				
MBTko arduradun gisa egindako urteak				
Merkataritza-sektorean edo lotutako eremuetan izandako esperientzia-urteak				
